

PA

Programazio
artistikoa

Getxon programazio
artistikoko proposamenen
deialdia eta oinarriak


2022



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu



Getxoko Kultur Etxeak 2022rako Programazio Proposamenen deialdia aurkezten du, getxotarrek sustatutako edo egindako obra eta proiektu artistikoak erakustea bultzatu eta ahalbidetzeko

Antzezlanak, koreografiak, zinema proiektzioak, edonolako musika kontzertuak, bertsolarien emanaldiak, haurren obrak, umore ikuskizunak, errezi-taldiak edo antzekoak izan ahalko dira. Era berean, onartu egingo dira lehiaketak, sariketak, zikloak edo jardunaldiak, baldin eta ez badute 3 egun baino gehiagoko iraupena.



Proposamenak programatu ahal izango diren erakusketa espazioak Muxikebarri, Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroa (Ereaga aretoa, Arrigunaga aretoa eta Areta aretoa) edo RKE Romo Kultur Etxeko Ekitaldi aretoa.

Helburua

Deialdi honen xedea getxotarrek sustatutako edo egindako obra eta proiektu artistikoak edo getxotarrek parte hartu edo kolaboratzen duten obren erakusketa ahalbidetzea izango da.

Hartzaileak

Proposamenak bidali ahal izango dituzte egoitza fiskala Getxon daukaten eta getxotarrek ekoiztu edo kontzeptualizatutako, idatzitako edo diseinatutako obra artistikoak landu, ekoiztu edo banatzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoek.

Nahi beste proposamen bidali ahal izango dira, baina Kultur Etxeak ez du bat baino gehiago hautatuko eskatzaille bakoitzeko.



Obra eta proiektuen baldintzak:

- Proposamenak edozein hizkuntzatan egon ahal izango dira, eta gutxienez ordubeteko (1) iraupena izan beharko dute.
- Erakusteko proposatutako datak 2022. urtearen baitan egon beharko dira eta argi eta garbi adierazi beharko dira inskripziorako formularioan, baina inola ere ez dira lotesleak izango.
- Kultur Etxeak zuzenean ordainduko ditu honako hauei lotutako kostuak: argiztapena, soinua, ikus-entzunezkoak, makineria eszenikoa, zamalanak, artistei emandako arreta, errejidoretza, publikoa antolatzeke langileak, sarrerak, leihatilak, jantzitegi zerbitzua, segurtasuna eta garbiketa zerbitzua.

Dokumentazioa:

Deialdian parte hartu ahal izateko, eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan:

Pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabidea (I. eranskina).
- Pertsonaren NANaren edo erakunde eskatzailearen IFKaren fotokopia.
- Azalpen-memoria (II. Eranskina).
- Erakustaldiaren behar teknikoak (III- eranskina).
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria.
- Bestelako dokumentazio osagarria:
 - Pertsonaren ibilbidea eta esperientzia.
 - Proposamenari lotutako lantaldearen CVa.
 - Proposamenaren material adierazgarria (artxibo grafikoak, soinuak eta ikus-entzunezkoak JPEG, AVI, MOV, MPEG, FLV formatuetan).



Getxoko Kultur Etxeak eskainitako dokumentazioa:

- Muxikebarriko Ereaga, Arrigunaga, Areta aretoen eta RKEko Ekitaldi-aretoaren fitxa teknikoa (IV. Eranskina).

Eranskin guztiak web gune honetan daude eskuragarri:
www.getxo.eus/es/aula-de-cultura/subvenciones

Aurkezpena:

Eskaera telematikoa
www.getxo.eus webgunean

Aurkezteko epea:

2021eko urriaren 13tik azaroaren 15era arte (biak barne).

Informazio gehiago:

- www.getxo.eus/es/aula-de-cultura/subvenciones
- kulturetxea@getxo.eus

Getxoko Kultur Etxea

Basagoiti etorbidea, 77
48991 Getxo - BIZKAIA
94 466 01 23

kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu